

1895-ko Apirillaren 25an

ADISKIDE ARTEKO BAZKARIAN

EUSKAL ZAR BATEN SENTITAKO ITZAK

Aita zar baten oroi diote
 Euskal erriko jaunari;
 Zori onean arkitzen zautzet
 Armoni gozo onetan:
 Beti orrela izan biar du
 Euskal-seméen artean,
 Arbola suspertuko badegu
 Biar du bizi pakean.

Aita zar orrek zuen biotza
 Penaz beterik munduan,
 Ikusirikan etsai gaiztoak
 Sartu zituten zizaiya.
 Bildurrik gabe gauden pakean
 Berinkatuen ondoan,
 Gure aitonak diran bezela
 Etsaien kontra zeruan.

Arbol santua, zuregatikan
 Bizitu gera gu beti,
 Oroitzen zauten biotz-artean
 Pozez beterik munduan:
 Zabal itzazu zañ eder oyek,
 Etorriko da frutuba,
 Gaur oraindikan lenaz bezela,
 Ez degu biotz galdua.

IGNACIO MERCADER.